HERRIZAINGO SAILA

6492

AGINDUA, 2008ko azaroaren 4koa, Herrizaingo sailburuarena, Ogasun eta Herri Administrazio Saileko Administrazio eta Zerbitzu sailburuordeari hau eskuordetzekoa: 2009. urtean Herrizaingo Sailaren menpeko administrazio-zentroak gas eta gasolioz hornitzeko kontratazioa (KM/2009/008 espedientea).

Eusko Jaurlaritzaren zentroetako berokuntza-sistemetan gas natural eta gasolio asko erabiltzen da.

Hidrokarburoei buruzko urriaren 7ko 34/1998 Legeak petrolio-produktuak eta gas-erregaiak hodi bidez merkaturatzeko jarduerak arautzen ditu.

Aipatutako legeak eta hori garatzen duten ondorengo arauek sistemako agenteen arteko harremanak eta hornidura energetiko horiek eskuratzeko prozedura arautzen dituzte eta, zehazki, erregai horiek merkatu liberalizatuan eduki behar dituzten prezioak eta ordainsariak ezartzen dituzte.

Ekainaren 5eko 136/1996 Dekretuaren V. kapituluaren eta lehenengo xedapen gehigarriaren bigarrenaren arabera, ogasun eta Herri Administrazio sailburuordeari dagokio orokorrean erabiltzekoak diren eta Giza Baliabideen Zuzendaritzari izendatutako gai edo zerbitzuen kontratazioa, kudeaketa zentralizatua duten eraikinetan (136/1996 Dekretua, Euskal Automomia Erkidegoko Administrazioaren kontratazio araubidea onartzekoa).

Horretaz gain, otsailaren 28ko 42/2006 Dekretuaren 9.a.4 artikuluan, zuzendaritza horri eman zaio era zentralizatuan eskuratu beharreko ondasun eta zerbitzuak kontratatzeko prozedurak garatzeko proposamena egiteko ardura (42/2006 Dekretua, Ogasun eta Herri Administrazio Sailaren egitura eta egitekoak ezartzekoa).

Alde horretatik, Baliabide Orokorren Zuzendaritzaren menpeko kudeaketa zentralizatuko eraikinetarako eta Herrizaingo Sailaren menpeko beste eraikin batzuetarako gas naturalaren hornidura eta Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailaren zenbait ikastetxetarako gasolioaren hornidura espediente bakar batean biltzea, gure ustez, lagungarria izango da zerbitzuak hobeto kudeatzeko nahiz gastua arrazionalizatzeko.

136/1996 Dekretuaren 19. artikuluan, bestalde, Giza Baliabideen Zuzendaritzaren eskumenak kudeaketa zentralizatua ez duten beste eraikin batzuetara hedatzea ahalbidetzen da. Hedapen hori gauzatzen da hitzarmenen bidez, administrazio-klausula zehatzen pleguetan aurreikuspen berariazkoak eginez edo Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Adminis-

DEPARTAMENTO DE INTERIOR

6492

ORDEN de 4 de noviembre de 2008, del Consejero de Interior, de delegación en el Viceconsejero de Administración y Servicios del Departamento de Hacienda y Administración Pública de la contratación del suministro de gas y gasóleo para el año 2009, en los centros administrativos dependientes del Departamento de Interior (Expediente: KM/2009/008).

El gas natural y el gasóleo son dos combustibles ampliamente utilizados por los sistemas de calefacción existentes en los centros de Eusko Jaurlaritza / Gobierno Vasco.

La Ley 34/1998, de 7 de octubre, del Sector de Hidrocarburos, regula las actividades destinadas a la comercialización de productos petrolíferos y de combustibles gaseosos por canalización.

La mencionada Ley y las posteriores normas de desarrollo regulan las relaciones entre los diversos agentes del sistema y los procedimientos para la adquisición de dichos suministros energéticos y en concreto sobre los precios y remuneraciones de los mismos en el mercado liberalizado.

A tenor del Capítulo V y de la Disposición Adicional Primera 2. del Decreto 136/1996, de 5 de junio, por el que se aprueba el régimen de la contratación de la Administración de la Comunidad Autónoma de Euskadi, corresponde la Viceconsejero de Hacienda y Administración Pública la contratación en edificios de gestión centralizada de las materias o servicios de utilización generalizada que hayan sido atribuidos a la Dirección de Recursos Generales.

Además, el artículo 9.a.4 del Decreto 42/2006, de 28 de febrero, por el que se establece la estructura y funciones del Departamento de Hacienda y Administración Pública, otorga a la mencionada Dirección la propuesta de desarrollo de los procedimientos para la contratación de bienes y servicios de adquisición centralizada.

En este sentido, se considera que la contratación en un único expediente del suministro de gas natural para los edificios de gestión centralizada de competencia de la Dirección de Recursos Generales y de otros dependientes del Departamento de Interior, así como el suministro de gasóleo a determinados centros docentes del Departamento de Educación Universidades e Investigación, contribuye tanto a la mejora de la gestión de los servicios como a la racionalización del gasto.

El artículo 19 del Decreto 136/1996, anteriormente mencionado, permite la extensión de las competencias de la Dirección de Recursos Generales a otros edificios distintos de los de gestión centralizada. Esta extensión se instrumentaliza por medio de convenio, previsiones específicas en los pliegos de cláusulas administrativas particulares o de las fórmulas previstas en la Ley de Ré-

trazio Prozedura Erkidearen Legean aurreikusitako formulen bidez.

Azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 13.1 artikuluan eskumenak eskuordetzeko aurreikusitakoa da aipatu eremuan gasaren eta gasolioaren hornidura egiteko kontratazioa espediente bakar batean egiteko formula egokia (30/1992 Legea, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearena). Hau xedatzen du artikulu horrek:

«1. Herri-administrazioetako organoek beste organo batzuei beren eskumenak eskuordetzan eman diezazkiekete, baldin eta organo horiek administrazio berekoak badira, nahiz eta bata bestearen mendekoa ez izan, edo administrazio horiei lotuta edo administrazio horien mendean dauden zuzenbide publikoko erakundeetakoak badira.»

Adierazitakoagatik, hau

AGINDU DUT:

I.– Administrazio eta Zerbitzu sailburuordeari eskuordetzea 2009. urtean Herrizaingo Sailaren menpeko eraikinak gas eta gasolioz hornitzeko kontratazioa egiteko eskumena. Agindu honen eranskinean jasotzen dira eraikinak.

Sektore Publikoaren Kontratuei buruzko urriaren 30eko 30/2007 Legean aurreikusitako eta kontratuari aplikatzekoak diren ondorengo arloetara hedatuko da eskuordetzea:

– Kontratua prestatzea (II. liburua).

– Kontratua esleitzea (III. liburua, I. titulua, I. kapitulua).

– Administrazioak kontratua aldatu, iraungi, laga eta azpikontratatzeko dituen eskumenak, IV. liburuko I. tituluan oro har arautzen direnak eta, hornidura-kontratuetarako, IV. liburuko II. tituluaren IV. kapituluan berariaz aurreikusten direnak.

– Kontratua formalizatzea (III. liburua, I. titulua, I. kapitulua).

II.– Kontratazio-organoari dagozkion gainerako eskumenak, eta bereziki, emandako zerbitzuen gauzapenari oniritzia emateko eta zerbitzuak ordaintzeko agindua emateko ahalmena organo eskuordetzaileak izango du.

III.– Eskuordetze hau izenpetzen den egunaren biharamunean jarriko da indarrean.

Vitoria-Gasteiz, 2008ko azaroaren 4a.

Herrizaingo sailburua,
JAVIER BALZA AGUILERA.

gimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común.

La formula apropiada para llevar a cabo en un único expediente la contratación del suministro de gas y gasóleo en el ámbito antes señalado, es la prevista para las delegaciones de competencias en el artículo 13.1 de la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común, que dispone lo siguiente:

«1. Los órganos de las diferentes Administraciones públicas podrán delegar el ejercicio de las competencias que tengan atribuidas en otros órganos de la misma administración, aun cuando no sean jerárquicamente dependientes, o de las entidades de derecho público vinculadas o dependientes de aquéllas.»

En virtud de lo anteriormente expuesto,

ORDENO:

I.– Delegar en el Viceconsejero de Administración y Servicios la competencia para la contratación para el año 2009 del suministro de gas y gasóleo en los edificios dependientes del Departamento de Interior que figuran en el anexo que acompaña a la presente Orden/Resolución.

La delegación se extenderá a las siguientes materias previstas en la Ley 30/2007, de 30 de octubre, de Contratos del Sector Público, que sean de aplicación al contrato:

– Preparación del contrato (Libro II).

– Adjudicación del contrato (Libro III, Título I, Capítulo I).

– Prerrogativas de la Administración, modificación, extinción, cesión y subcontratación previstas con carácter general en el Libro IV Título I y con carácter particular para los contratos de suministro en el Libro IV Título II, Capítulo IV).

– Formalización del contrato (Libro III, Título I, Capítulo I).

II.– El resto de las competencias que corresponden al órgano de contratación, y en particular la facultad de dar la conformidad a la ejecución de los servicios prestados y ordenar el abono de los mismos, permanecerán en el órgano delegante.

III.– La presente delegación entrará en vigor a partir del día siguiente de su firma.

En Vitoria-Gasteiz, a 4 de noviembre de 2008.

El Consejero de Interior,
JAVIER BALZA AGUILERA.